

GETXO: ETXEBIZITZAREN PREZIOAK GORA EGITEN JARRAITZEN DU

Azken urteotan gure herriko biztanleria murrizten joan da. Arrazoiak agerian geratu dira: web higiezin orrialde batean bilatuz gero, Getxoko etxebizitza merkeenak hilean 900 euro ordaintzea dakar 50 m²-ko alokairu batengatik. Zein familia eta gaztek ordaindu dezakete hori? Jasangarria da?

Bien bitartean, 888 etxebizitza hutsik daude gure udalerrian, eta beste 181 etxebizitza turistikoko erregistratuak (erregistratu gabe daudenak gehituta), eta, beraz, ez dute bizitegi-erabilerarik. Baina Udal-gobernuak besoak gurutzatuta jarraitzen du, Getxoko naturgune bakanetan eta (gero eta gutxiago) landaguneetan etxe berriak hitzematen. Baina nork ordaindu ahal izango du etxebizitza berri hori prezio hauetan? Arazoak berdin jarraituko du.

Kataluniako udalerrri gehienetan, tentsionatutako eremuak deklaratu diren lekuetan, alokairuak %14,7ra jaitsi dira. Proposatu dugu OHZ etxebizitza hutsera igotzea, EAEko Etxebizitzaren Legeak baimentzen duen kanona eta nahitaezko alokairua aplikatzea edo Getxo gune tentsionatu izendatzea. Baina ezer ez. EAJk eta PSEk, PPren babesarekin, neurri horiek guztiak errefusatu dituzte.

GENOZIDIOA STOP!

Palestinako herriari elkartasuna adierazteko mobilizazioek ez dute etenik izan azken urtean. Zoritxarrez, Israelek herri palestinarraren aurkako erasoak areagotzen jarraitzen du, errefuxiatuen kanpalekuak eta NBERen zentroak bonbardatuz.

Genozidio hau eta zigorgabetasuna salatzen jarraituko dugu mundu osoaren aurrean.



JAUREGIKO GAUZAK...

Joan den abuztuan jakin zen Irurak Bat jauregia eraitsi zela Algortako San Nikolas kaleko 11. zenbakian. Jauregiaren sustatzailean EAJko bi zinegotzi daude eta honez gainera, obrak zortzi hilabete lehenago hasi ziren eta Udalak ez zekien. Auziak prentsara salto egin zuenetik, udal gobernuaren aldetik ez da gardentasunik egon. Aitzitik, ikerketa-batzorde baten sorrera oztopatzen saiatu dira, legea eta araudia ez betetzeraino.

Azkenean egitea lortu genuenean: informazioa ezkutatzea, erantzuteko ezezkoak, inplikaturako zinegotziak eta alkatea ez egotea... Jauregiko gauzak ez direla beti astiro joaten susmarazten duten gertaerak, baizik eta, besterik gabe, gaizki egiten direla.

Gai honetan guztian, Getxoko Podemos/Ahal Dugu-tik kezka ikusten dugu EAJk ez duela borondate politikorik Irurak Bat eraisteko au-

-ziak dituen arazo guztiak konpontzeko ez intentziorik ez ezer.

Urrian egindako aparteko batzordean erantzun gabe geratu ziren galdera guztiekin, argi geratzen da eraistearen kasua gobernu-talde horrek ondarearekiko duen ardura eta errespetu faltari erantzuten diola. Haurtzandegiko eraikinarekin, Erromoko Nagusien Etxearekin... erakutsi zuten. Ondare hori gehiago txikituko da EAJk, PSEk eta PPK Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) onartu ondoren.

Udalerrri baten ondarea bere nortasunaren eta egunerokotasunaren zati bat da. Babestu beharko lukete, eraitsi beharrean.

AUZOAK ERDIGUNERA

Getxoko auzo batzuek, hain erdigunekoak ez direnek, zerbitzu publikoen gabeziak dituzte. Izan ere, Aldapa-Zubileta edo Andra Mari auzotarrek adierazten dute beren kaleetan gero eta bizitza gutxiago dagoela. Getxoko Podemos/Ahal Dugu-tik gure auzoak azkenean logela-auzo bihurtu ez daitezela lan egin dugu eta hainbat proposamen egin ditugu.

Horregatik uste dugu garrantzitsua dela Andra Mari, adibidez, Kultur Etxea izatea, eta ez liburuak jasotzeko edo itzultzeko postontzi automatikoa bakarrik. Beharrezkoa da kultura Getxoko auzoetara hurbiltzea.

Era berean, 2024ko aurrekonturako haurreskola bat aztertzeko partida bat bideratzea proposatu genuen, Aldapa eta Andra Mari auzoei estaldura emateko. Baina, EAJk eta PSEk errefusatu egin zuten. Auzoek arreta eta entzute aktiboa behar dute Udalaren aldetik, baina, oro har, ez zaie jaramonik egiten.



KUTSATZEN DUENAK ORDAINDU EGITEN DU

Ba al zenekien Repsol bezalako energia-enpresak karbono-merkatuko isurien %60,5en erantzuleak direla? Kutsatzen duten bitartean, forratu egiten dira, eta 10.000 milioi euro poltsikoratzen dituzte urtebetean. Zifra astronomiko horiek familiei energiaren prezioak igoz irabazten dituzte.

Ez da garaia gehien kutsatzen dutenei zergak jaisteko. Hori dela eta, Podemosek Gobernu zentralari eskatzen dio energia handiei ezarritako zerga bikoiztea eta iraunkorra izatea.

Zerga gehiago ordaindu behar dituzte klima-alaketaren ondorioak arintzeko eta etorkizuneko gertaera klimatologiko kaltegarrietarako prestatzeko.

www.getxo.podemos.eus

   [podemos_getxo](https://www.instagram.com/podemos_getxo)

 Info Podemos Getxo

 688 75 04 57

 podemos.getxo.ahaldugu@gmail.com

ZURE INDARRAK ERALDATZEN DU
ZATOZ ETA PARTE HARTU!
GETXOKO ZIRKULUA